



GOENKALE HERNANIN

Nikolas Lizeaga
Miren Gojenola
Mikel Laskurain

Lore Unanue Azpiazu

Nork ez du noizbait GOENKALE ikusi?

Nork ez du GOENKALEKO korapiloen inguruan hitzegin?

Dударик gabe, "fenomeno" berezi batean bihurtu da GOENKALE saioa. Zergatik? Batek daki; Baina uka ezina da, arratsaldero lagun asko eta asko direla GOENKALEKO nondik norakoak jarraitzen dituztenak.

Euskal Herrian gainera, telebistako saio bateko protagonistak gure kaleetan barrena ikustea, ez da gauza arrunta eta hori ere berria da guretzat. Hernanin adibidez, GOENKALEKO hiru protagonista, nagusienetakoak gainera, ia egunero ikusten ditugu. Zergatik? Hernanin bertan bizi direlako. Nikolas, hernaniarra da eta Miren eta Mikel (lekeitiarra eta bergararra jaiotzez) Hernani aukeratu dute bizitzeko. Gero jakingo dugu zergatik.

Beraiekin hitzegiteko aukera izan dugu guk eta hementxe dituzue esandakoak.



–Bi urte dira jada, GOENKALE egunero gure etxeetara sartzen dela. Argi dago ikus-entzuleei ondo pasatzeko aukera ematen diela GOENKALE saioak. Baina, zuei zer eman dizue edo-eta zer ematen dizue GOENKALEK?

MIKEL –Lehendabizi, lan bat. Segurtasuna; hilean hileroko segurtasuna, horrek dakarren hila-ren bukaerako soldata eta esperientzia; lanean hartzen den esperientzia, edozein lanbidean derri-gorrezkoa. Kanean ezaguna izatea era eman digu GOENKALEK, baina hori askotan ez da hain ona.

NIKO –Hasteko, gutxienez lana, ez dela gutxi. Lana izatea, soldata bat izateko aukera; nik gai-nera hainbeste hilabete segidan ez dut ezagutu eta uste dut, alde horretatik momentu honetan, pribilegiatu batzu garela Euskal Herrian. Bestetik, Mikelek esan duen bezala, esperientzia. Guk zo-rionez hilabete hauetan esperientzia handiagoa hartu dugu zenbaitek urte askotan baino, zeren eta egunero GOENKALEKO atal bat egitea....; es-perientzia mota bat hori bai, baina azken finean esperientzia.

MIKEL –Patxada handia hartu diogu telebis-tari kamara aurrean jartzeko garaian. Baina nik uste dut hori normala dela, edozein lanbidean be-zela; linternero batek ehun komun jarritakoan, le-henengoa baino hobeto jarriko du azkena.

–GOENKALERI esker, oso pertsonai ezagu-netan bihurtu zarete. Famatu izate horrek, era-gozenak, abantailak, arazoak,... zer da ekarri dizuena?

NIKO –Denetatik. Batzuetan polita da ezagu-na izatea eta beste batzuetan berriz neketsua.

MIKEL –Denetatik. Abaniko bat da.

NIKO –Orokorrean, nere kasuan behintzat, esperientzi politak. Askotan gainera norberaren ja-rrerak zerikusi handia du.

MIKEL –Gerta daiteke, zuk umore ez izatea egun horretan. Aurrera egiten saiatzen zara... oro-har esperientzia politak dira.

NIKO –Jendeak erlazionatzen gaitu telebistan ematen dugun irudiarekin eta ez dira konturatzen, gu jende arrunta garela, denok bezela, egun onak eta momentu txarrak ditugula. Azken batean zu beti egon behar duzu prest. Esan nahi dut, oso ne-



katuta zaude edo-eta bronka bat izan duzu, edo izaten dira egun batzu oso barnekoi zaudela, egun horietan ezin izaten dut behar den bezela eran-tzun.

MIKEL –Kaleko jendeak ezagutzen zaitu egu-nero ikusten zaituelako eta konfidantza dute zure-kin. Zuk berriz, ez duzu inondik ezagutzen. Auto-matikoki, bere "pelikulan" sartzen zara; baina ho-ri askotan zaila egiten da.

–Kaleko jendeak; nola deitzen zaituztete?

MIKEL –Normalean Felix, baina baita ere Mikel.


MIREN –Telebistan, taxistaren papera egiten zuenean Mikel zen eta asko eta askok Mikel dei-tzen diote. Neri berriz, Amaia leku guztietan. Lekei-tion ere Amaia deitzen didate. Eta ez bakarrik hori, Bergaran, Mikelen aitak Amaia dietzen nau; asko-tan esan behar izaten diot, -ez barkatu Miren-.

NIKO –Neri gehienetan Gaizka, baina Niko ere deitzen didate.

Umeak dira gure izenak dakizkitenak. Hel-duak baino gehiago fijatzen dira izenarekin.

–GOENKALE, helduentzat zuzendutako saioa da, baina ume eta gaztetxoei orohar asko gustatzen zaie. Norengan du arrakasta handiago GOENKALEK, umeengan edo helduengan?

MIREN –Dударik gabe audientzia handiena, umeena da.



NIKO –Ume askok ikusten du GOENKALE. Gu ere askoz ere konszienteago gara ikusle umeekin, helduekin baino. Umeak dira gainera, kalean ikusi eta hurbiltzen zaizkugunak. Helduen kasuan, gehiago kontrolatzen dira. Ezagutu bai, baina ez zaizkugu etortzen, umeak berriz, ez dira batere kontrolatzen.

MIKEL –Eta kuadrilan badaude, gutxiago. Sei edo zazpi elkarrekin badaude, bueno! kapaz dira ordu t'erdiz zure atzetik ibiltzeko.

NIKO –Neri gertatu zait leku batean sartu beharra ihesian. Askotan, edozein lekura joateko asmoa baduzu, pentsatu behar duzu nora zoazen. Adibidez, Kilometroak edo Egunkari Festara zozela, zerekin aurki zaitezken gogoan izan behar duzu eta ondo pentsatu. -gaur bai, banoa; animorik badut. Edo ez noa, horretarako animorik ez dudalako.

Badakizu, autografoak sinatu beharko dituzula, jendea hurbilduko zaizula eta irrifartsu egon behar duzula.

MIKEL –Plaza-Berritik pasa zaitez zazpiak aurretik... Askotan animoso ez bazaude, beste bide bat hartzen duzu eta listo, baina guzti hori pentsatu behar duzu aurretik.

NIKO –Askotan, hitzegin nahiean edo, ohiuka hasten zaizkizu eta zuk horretarako gogorik ez baduzu, berehala esaten dute "txuloa" zarela telebista ateratzen zarelako. Askotan "injustoa" da.

Dena den, nere kasuan, lasaien Hernanin ibiltzen naiz. Umeak dira "arrisku" handiena. Jendeak betidanik ezagutzen zaitu, bai kalean eta baita ere beste hainbat saioetan ikusi zaituztelako "Bi eta Bat", "Funtzioa", iragarkiren batean,... Jendea, nere ustez, ohituta dago aktore bezela ikusten eta badakite zein familitakoa zaren.

MIKEL –Betiko tokitan ibiltzen bazara, ez dago arazorik. Gure herrietan eta Hernanin bertan ez dugu arazorik.

–Gertakari bitxiren bat kontatuko diguzue.

NIKO –Ahaztu egiten zaizkit.

Behin Ondarrun gonbidatu ninduten taberna batean. Zerbait hartu genuen eta ordaintzeko garaian ez ziguten kobratu. Beste behin berandu irixi bazkaltzera eta bazkaltzen eman. Joan den urtean, sagardotegira joan ginen hirurok, enkargatu gabe, eta tokia egin ziguten. Larunbata-ostirala zen eta sagardotegia gainezka zegoen. Bertako alabak ezagutu eta mahai bat jarri ziguten iskin batean.

MIKEL –Baino, ez pentsa ...hainbeste ere ez. Ez dago beste munduko "txoilorik".

–Argi dago, Euskal Herrian behintzat Famatu bihurtu zaretela. Baina kanpora begira, estatuta, atzerrira begira, aterik ireki al dizue GOENKALEK?

Eta Euskal Herrira begira?

MIREN –Estatuta begira ezer ere ez. Akaso ETB-k GOENKALE beste katera salduko balu... baina zaila da gu ezagutzea.



MIKEL –Euskalerrri mailan, takilan nabaritzen da bai. Zertxobait somatzen da. Estreinatu berria dugu obra eta ezin dezakegu gehiegi esan. Hori bai, emanaldi bakoitzean aretoa bete, betetzen dugu.

Niko, Miren eta Mikel urteak daramatzate antzerki munduan. Jende asko eta askok orain ezagutu ditu GOENKALERI esker, baina urteak dira tabladuz tabladu dabilzala. Gaur egun ere ez dute ez antzerkia utzi, hori baita gustoko dutena. Miren eta Mikel Hika Antzerki taldeko kideak dira eta une honetan obra batean buru belarri sartuak daude. Henry Bengoa Inventarium da jada ikusgai dugun obra hori. Nikok ere ez du antzerki mundua utzi eta Orain Antzerki taldeko kidea da. Hauek ere kaleratu dute beren azken obra: Besarka gaitzen Faulleuille.

–Zuek aspaldidanik zarete aktore eta ondo asko ezagutzen duzue mundu hori. Aktoreek beti hitzegiten duzue eskenatokiaz, tabladuak eskeintzen duen xarmaz. Telebistak ba al du xarma hori?

MIKEL –Egia da, telebistak ez duela xarma hori eskeintzen. Askok ere hotzagoa da. Errezagoa da gezurrak asatea, gauzak benetan ez esatea alegia. Antzerkian, zure aldetik gehiago jarri behar duzu. Intensoagoa da tabladu gaineko lana.

NIKO –Tabladuan zaudenean jendea entzuten duzu (eztula, farrea, arnasa,...). Ez dago gelditze-rik akats bat egiten baduzu. Ez duzu teknikak ematen dizun handik hartu, hemendik moztu, hor erantsi. Telebistan egiten diren mila manejo ezin da egin antzerkian.

Dudarik gabe intensoagoa da. Obra sentitu egiten duzu. Ondo doanean jai bihurtzen da. Komunikazioa sortzen da. Ni gainera, urduriago jartzen naiz, emanaldi bat emateko garaian plato batean baino.

MIREN –Antzerkia gehiago sentitzen duzu eta urduritasun hori ez zaizu kentzen.

–Nik beti entzun izan dut, aktore batentzat, telebista beste pauso bat besterik ez dela, ez aktorearen helburua. Egia al da hori?

MIKEL –Pauso bat da. Hau bukatu egingo da. Hori bai, gero bueltatzea gustatuko litzaiguke.

MIREN –Bueltatzea gustatuko litzaidake, bai, ez GOENKALERen martxara; egunero egunero grabatzen. Honela ez.

NIKO –Gure helburua orain lana edukitzea da, bai telebistan, bai antzerkian... Zoritzarrez ezin dugu aukeratu.

Neri adibidez telebistan aritzea asko gustatzen zait, hori bai, antzerkia ez dut utzi nahi eta ez dut uste utziko dudarik. Eta zinetik datozen eskeintzak, urriak dira.

–GOENKALEn korapilo asko eta asko dago oraindik askatzeke, baina korapilo handiena bat da: noiz arte GOENKALE? Zuentzat, diru iturri modura eta esperientzia izateko ondo, baina zuen "karrerentzat" ondo, ez hain ondo...?

NIKOGOENKALEk ekainerarte jarraituko du eta gero ikusi beharko da hirugarren urte bat jarraituko duen ala ez. Hori ETBren esku dago. Pauso produktorak jarraitu nahi du beste urte batez, baina azken hitza ETBrena da.

Gure kasuan berriz ezin dugu ahaztu, GOENKALE noizbait bukatu egingo dela eta antzerkiarekin bizitzea zaila da.

MIKEL –Nahiz eta bi gauzak egiten ari zarela piska bat agobiatu, aurrera egin behar dugu. Batzuetan "saturatuta" zaude; egunak dira, baina Nikok esan duen bezela antzerkiarekin bakarrik ezin du batek aurrera egin. Gaur egun zaila da.

NIKO –Dena den ez pentsa telebistan ikaragarri irabazten dugunik. Ondo irabazten da, baina ez jendeak uste duen adina. Jende askok uste du "forratu" egiten garela telebistan. Argitu behar dugu, guk egindako lanaren arabera kobratzen dugula. Udaran adibidez ez dugu kobratzen GOENKALE bukatzen da udaran eta akabo. Ez dugu ez paga extraordinariarik, ez aginaldiorik, ez primarik, ez ezer. GOENKALE idazten duen gidoigileak erabakitzen badu Gaizka istripu batean niltzen dela, Niko lanik gabe gelditzen da. 20 egun lehenago abisatzen dizute eta listo.

–Nola bizi dira telebistan ikusten ditugun aktore horiek. Zein da zuen eguneroko martxa?

MIREN –Egunero, kapitulo bat grabatzen da.

Goizeko 7.10etan Miramonen gaude. Makilla-jearekin hasten da eguna. Ondoren, dagokigun sekuentzia ensaiatzan da eta behin ensaiatu ondoren grabatu. Horrela, arratsaldeko 15:45ak arte.

NIKO –Produkziokoek bakoitzari esaten digute zein egunetan zeintzu sekuentzia grabatu behar diren. Adibidez: Astelehenean zuk halako ordutan grabatu behar duzu halako atala edo atalak. Zuk prestatuta ekartzen duzu etxetik, buruz ikasita alegia. Hala ere zenbait kasutan zuri dagokizuna oso luzea ez bada bertan ikasten dugu, besteek grabatzen duten bitartean.

MIREN –Nik adibidez, besteek grabatzen duten bitartean, erlajatzeari nahiago dut eta "punto kruz" egiten dut. Ikastea ezinezkoa zait han dagoen iskabilarekin. Oso korrika lan egiten da. egunero atal oso bat grabatzeko korrika ibili behar da. Akatsak, batzuetan zuzentzen dira, baina beste batzuetan berriz ez, denborak agintzen du.

Bizitza intensoa daramate dudarik gabe Hernanin bizi diren GOENKALEko hiru aktore hauek. Ezin dugu ahaztu gainera, arratsaldeak antzerkirako gordetzen dituztela. Arratsaldeak eta asteburuak, emanaldiak normalean asteburuetan izaten dituztelako.

Aurtengo Urtarrilean egindako elkarrizketa honi amaiera emateko galdera bat falta zaigu; derrigorrezko galdera gainera. NIKOLAS Hernanin ikustea ez da gauza arraroa bertakoa dugulako, baina MIREN eta MIKEL, Zergaitik aukeratu duzue Hernani bizitzeko?

MIKEL –"De rebote"

MIREN –Orain dela hamar urte Donostira etorri nintzen Antzerki eskolara. Donostitik, Usurbileira eta Usurbildik Hernanira.

MIKEL –Kasualitatez izan zen. Etxe merke baten aukera ateratzen zaitzaigun eta Hernanira etorri ginen. Hori bai oso gustora gaude Hernanin.

GOENKALEK jarraitu edo ez jarraitu argi dago MIREN, NIKO eta MIKELEK lan egiteko gogo handia dutela. Mila esker hiruroi zuen denbora eskeintzeagatik.



GOENKALE